

***EZKUTUKOA HITZEZ MARRAZTEN:
GAZTEON ARTEKO INDARKERIA SEXISTA***

KAPITALISMOA ETA PATRIARKATUA GURE HARAGI BIHURTZEN DIRENEAN

Harremanek zeharkatzen gaituzte...

Pertsonak izaki sozialak gara, bizitzeko elkarren beharra dugu, harremantzeko beharra. Jaiotzen garen momentutik hasten gara harremantzen: gurasoekin, neba-arrebekin, haur eskolako umeeekin, eskolako irakasleekin, lagunekin, lankideekin, bikoteekin, auzoko dendariekin, seme-alabekin... Etengabe eta bizi osoan zehar harremantzen gara eta harremantzeko beharra dugu. Harreman horiek era askotan egokitzen ditugu gure plazera lortzeko edo gure behar afektibo, sexual eta emozionalak asetzeko. Agerikoa da harremanetatik ikasi egiten dugula, hauekin aldatu egiten garela eta heldutasunerako bide ditugula. Edonola ere, argi dagoena zera da: harremandu egiten garela, harremanak egiten ditugula, harremanek egiten gaituztela.

Gaztaroan harremanek esangura berezia hartzen dute. Lagun arteko eta bikote harremanak izan ohi dira gazteon bizitzetan eta poztasun eta kezka iturri garrantzitsuenak. Lagunen artean, taldearen parte sentitzea, garen bezalakoak onartuak izatea, kontu garrantzitsua da gazteontzako. Barren-barrenean sortzen zaigun beharra da eta zenbait kasutan gure nortasuna, edo gutxienez kanpora begirako aurpegia, eraldatu genezake taldearen onarpena lortzearen.

Txikitatik bikotearen maitasun ideala (monogamoa, heterosexuala eta betierekoa) bizitzan zorientasuna lortzeko ezinbesteko elementu gisa barneratzen dugu. Ondorioz laranjaren beste erdia ezinbestekotzat jotzen dugu. Hau da, bikote baten beharra sentitzea gure buruak osatuta ikusteko. Askotan, bikotea edukitzearen presioa hain da handia, harreman horien arabera bihurtu daitekeela gure auto-estimua, konfiantza eta zorientasuna. Ondorioz, beste era batzuetako harremanak (lagunak, lankideak, familiako beste kide batzuk...) bigarren maila batean geratzen dira, besteak ez baitira gure etorkizuneko bizitza proiektuan lehentasunez txertatzen. Izan ere, bikotea "lortu" (lorpena bezalako terminoak erabiltzen ditugu eta, txapelketa bat bailitzan) eta harekin bizi eta seme-alabak izatea bihurtzen da gure bizi proiektua: gainerako harremanak eta egoerak bigarren mailakoak izanik.

Harremanak ez ditu patuak bideratzen. Naturak ez dizkigu harreman ereduak inposatzen, txikitatik ikasi egiten ditugu eta gure testuinguru sozioekonomiko-kulturalak zeharkatuta daude.

... eta harremanak zeharkatuta daude

Baina, **zeren arabera da harremanetan egokitu zaigun papera?** Jendartean dugun posizioaren arabera. Elementu desberdinek baldintzatzen gaituzte: gaztea ala heldua, irakaslea ala ikaslea, guraso ala seme-alaba, langilea ala langabetua, bertan jaioa ala etorkina, goi mailako ikasketadun ala gradu bat egindakoa, lotsagabe ala lotsatia, enpresaria ala soldatapeko langilea... eta, nola ez, emakumea ala gizona.

Jendartean binomioka (bikotea) antolatutako kategoria guzti horiek harreman desberdinetan gure posizioa zein izango den zehazten dute. Elementu desberdinak gurutzatzean posizio zehatzak sortzen dira (adib: emakumea, etorkina eta langabetua). Binomio horietako kategoriek sozialki duten esanahiaren arabera, bi posizio markatzen dituzte: harremanean botere gehiago duena eta gehiegizko botere horren menpe dagoena; edo bestela esanda, zapaldua eta zapaltzailea. Eta pertsona batek zenbat eta menpeko kategoria gehiago izan, orduan eta aukera gehiago ditugu zapalduagoa izateko.

Munduaren ikuskera dualista eta hierarkikoa izateko hezi gaituzte mendebaldeko ideologia hegemonikoek. Gauza eta gertaera oro identifikatua eta sailkatua dago gure buruetan. Gauzen sailkapen hori "naturalizatzen" edota "esentzializatzen" da, normala eta saihestezina dela uler dezagun. Ondorioz, binomioetatik at egon daitekeen "sailkatu gabeko" beste edozein aukera, arauetatik ateratakoa eta ez-naturalizat joko da gure gizartean, eta horregatik bere zigorra jasoko du. Errealitate bat eta bakarra dagoela saltzen zaigu, bertan sartzen ez dena ezabatua, baztertua, gutxietsia edo zapaldua izango da.

Antolaketa dikotomiko horietan oinarritzkoenatariko elementua generoa da. Honek esan nahi du kategoria guztien baitako azpi-kategoria dela emakume eta gizonarena. Edozein talderen baitan emakumea izatea, identitate zapaldua izatea da: emakume gaztea, emakume etorkina, emakume langilea... Dena den, are zapalduagoa dago ez emakume, ez gizon bezala bizi nahi izatea, binarismotik ateratzea gogor zigortzen baita gure gizartean. Azaltzen ari garen antolaketa dualaren bizkarrezurra heterosexualitatearen instituzioa da. Heterosexualitatea ez da aukera edo praktika sexual soil bat: sistema oso baten antolakuntza da, arau sozial hertsia, era askotako zapalkuntzak zilegi bihurtzen dituena. Horretxegatik hain zuzen ere, arau hori hausterakoan klandestinitatea bizitzera bultzatzen gaituzte, patologizatu egiten gaituzte edo

asimilatuak gara; izan ere, disidentzia hauek sistemaren biziraupena kolokan jartzen dute. Hau da pertsona transexual, intersexual, bisexual, lesbiana edo homosexualen errealtatea, kasu askotan.

Zapaldu eta zapaltzaile entzunda, indarkeria burura datorkigun arren, askotan harremanetan ematen diren indarkeriak hain dira sotilak, antzeman ere ez ditugula egiten.

Indarkeria eta menperatze mekanismo ugariak botere sinboliko eta ikusezinekin daukate zerikusia. Esaterako, gurasoek zerbait egitea debekatzen digutenean, benetan zer da egin dezaketena gure erabakia saihesteko? Baina normalean euren agindua betetzen dugu, gurasoen *botere sinbolikoari* men egiten diogulako, beraiekiko karga dependiente bat sortu digutelako. Era berean, lagunen arteko harremanetan argi ikusi genitzake zapaltzaile-zapaldu rola: jarrera bortitzagoa duen lagunak, bestearekiko dominaziozko harremanak sor ditzake. Asimetria hauek harreman aske, osasuntsu eta konfiantzazkoak izatea oztopatzen digute.

Baina horrek ez du esan nahi botere asimetria horiei buelta eman ezin zaienik: gerta daiteke orain arte zapaldua zenak planto egin eta boterea eskuratzea. Edo gerta liteke, arazoaren erroa jo eta botere asimetriarik gabeko beste eredu bat eraikitzea. Esan bezala, **harreman ereduak eta botere asimetriak ez dira naturalak; sistema kapitalista eta heteropatriarkarra mantentzea dute xede** eta horretarako antolatuta daude. Zorritzarez, harreman ereduak zalantzan ez jartzen ikasi dugu eta honek sistemaren zapalkuntzen erroak identifikatzea galarazi izan digu. Txikitatik errealtatea interpretatzeko kodea barneratzen dugu: zer dagoen "ongi" eta zer "gaizki", neska edo mutila garen, normala eta ez-normala zer den. Honek guztiak ordena soziala mantentze bidean izugarritzko botere sinbolikoa du. Izan ere, generoekin haustek, normalitatearekin haustek, ez du zertan zigor juridiko-formal zuzen bat izan behar ondorio gisa, baina *zigor soziala* izango du gehienetan. Inon ez da jasotzen mutil bat eskolara soinekoa jantzita joan ezin denik, baina jakin badakigu eginez gero, gainerako kideen irainen objektu izango dela. Zigor hauek, normalitatearen aterpean eman ohi direnak, intentsitate ezberdinetan eman daitezke: modu sotil eta ezkutu batean ematek (presioa edo indarkeria sinbolikoa dena), indarkeria fisikoa izatera pasa daiteke muturreko kasuetan.

Kapitalismo eta heteropatriarkatuaren oinarritzko harreman-unitatea **familia nuklearra** da. Horrela sistemaren engranaje ezberdinek (instituzioek, komunikabideek, egitura ekonomikoek...) bikote heterosexualak osatzera, harreman monogamoak izatera eta familia nuklearrak sortzera bideratzen gaitu. Bikote ezkonduak, esaterako, erraztasun fiskalak jasotzen dituzte. Gainera, krisi ekonomiko garaietan, eta are gehiago Euskal Herrian egondako higiezinaren inflazio eta espekulazioaren ondoren, langabeziak zein soldata eskasek gazteak gurasoen etxetik alde egitea berandutu dute eta emantzipatu nahi izatekotan beste norbaitekin egitera behartuak gaude; askotan bikotearen aukera izanez indartzen dena gizartetik. Azken batean, txikitatik barneratu dugun eredu idealaren arabera, gure bizitza proiektua bikotearekin garatuko dugunez, bikotearekin bizitzeak egonkortasun bat eta proiektu horren garapenean aurrerapauso bat suposatzen du. Askotan, gazteon artean alokatutako pisuez ari garenean inkontzienteki horrela adierazten dugu: lagunekin bizitzera joaten gara, baina bikotea topatu eta berarekin bizitzera joan aurretiko pausu gisa. Norekin eta noiz arte bizi behar garen ere, sistemak jaio aurretik programatua du.

Esan daiteke **krisi garaian harturiko neurriek familia heteropatriarkar nuklearraren berrindartzea izan dutela helburu**. Hainbeste erreformek utzitako baldintzek zaintzen eta bizitzen ongizatearen krisia eragin dute, hauek etxe barnean eta gehienetan emakumeen esku gelditu direlarik, beste behin ere.

Egia da azken hamarkadetan familia nuklearrean aldatuta txikiak eman direla: banaketan tasa asko igo da, banandutakoek familia nukleo berriak sortzen dituzte, horien seme-alabek bi famili nukleo dituzte; guraso bakarreko gero eta familia gehiago daude; guraso homosexualak dituzten familia kopurua gora doa... baina honek ez du gizartearen harreman antolaketa eraldatu, sakonean, familia eredu berdina izanez. Esaterako, bikote homosexualak seme-alabak izatea gero eta onartuago dago jendartean. Baina familia horiek, oro har, aita eta ama batek osatutako familia eredu kolokan jartzen dute? Ala gurasoen generoa aldatu bakarrik? Kapitalismoa birdefinituz doan sistema bat den heinean, disidentzietatik etekina ateratzen ikasten du, hala, atzo sistemaren kontrakoak ziren harremanak gaur baliteke honen erreproduktoreak izatea.



GAZTEON ARTEKO EGUNGO MAITASUN HARREMAN EREDUAK

Gure testuinguruan kokatzen: "Esaiozu maite duzula bihotz formako bonboi-kutxa hau oparitzuz!"

Gure sistema neoliberala eta kontsumo gizartea errepresiboa da izatez, esplotazioa behar duelako batzuen aberastasunaren metaketarako eta lehian oinarrituta dago. Gizarte honek, beraz, ez ditu maitasun harremanak elikatzeko baldintzak sortzen (maitasun harremanak bere zentzu zabalean ulerturik: laguntasuna, intimitatea, familia...). Estresak, presak, prekaritateak, bizirauteko kezak, ezegonkortasunak, kontsumo basatiak... gure harremanak zaintzea oztopatzen digute. Esan genezake, oro har, maitasunaren eremua pobretu egin dela mendebaldeko gizarteetan.

Bestalde, askotan kontsumo logikak gure harremanak blaitzen ditu, erabili-bota edo azaleko harremanak bultzatuz. Honi *maitasun likidoa* deitu izan zaio. Hau moderno edo askatzailetzat saldu izan bada ere, garbi eduki behar dugu konpromisorik gabeko giza harremanak, alegia, pertsonen artean aliantza esturik gabekoak, sistemarentzat onuragarriak direla. Baloratu beharra dago noraino gailentzen den likidotasun hau betiereko maitasuna aldarrikatzen duen eredu erromantikoaren gainean, edo zelan uztartzen diren biak. Baloratu beharra dago, guk maitasun eremua irauli nahi badugu, konpromisoaren zein kontzepzioa edo zein aliantza mota bultzatuko dugun. Asko dugu eztabaidatzeko!

Gure garaietako indibidualismo eta zatiketarako joerek angustia eta bakardade dosi handiak sortzen ditu jendartean. Honen aurrean, bikotea, maitasun ahalguztiduna eta laranja erdia aurkezten zaizkigu salbazio bide bakartzat, bestelako sostengu edo harreman kolektiboak, laguntasun harremanak e.a. bigarren plano batean geldituz, iraungipen data balute bezala. Horrela, maitasuna indibidualizazio sozialerako elementu gisa erabiltzen da eta era berean, bakardadeari ihes egiteko aterabidetzat; indibidualizaziorako bide eta aterabide, beraz. Gure gizartean "**binakako indibidualismoa**" da bultzatzen dena.

Panorama honetan, paradoxa batek talka egiten digu barnean, sozialki ezartzen diren mandatu biren artean gora-behera gabiltzalarik: **proiektu-arrakasta indibiduala vs. bikote proiektua**. Talka hau lazgarriagoa da emakumeongan, bikotearen agindua zorrotzagoa delako gure kasuan. Eta gainera, emakumeok bi feminitate ereduren artean harrapatuta gaude: alde batetik, maitasuna eta gure onena beste pertsoneri bueltan ezer eskatu gabe eskaintzen dion feminitatearen paradigma tradizionala; eta bestetik, arrakasta pertsonala, lehiakortasuna eta eraginkortasuna aldarrikatzen dituen paradigma moderno.

Bukatzeko, ezin ukatu gure kontsumo-gizartean maitasunak, izugarriko merkatu aukerak zabaltzen dituela, eta ez direla gutxi horretaz bizi diren enpresak. Maitasuna eta maitaleak, beraz, kontsumo objektu eta subjektu dira kapitalismoarentzat:

>MAITASUNAREN INDUSTRIA: Eliza (nahiz eta ezkontzak bere horretan ez kobratu, diru-laguntzak onartzen ditu trukean), internet bidezko kontaktu agentziak, soltero/a despedidak antolatzear arduratzen diren enpresak, "maiteminduen egunerako" opariak saltzen dituzten dendak, ezkontzetarako jatetxe eta hotel espezializatuak, eztei bidaietarako arduratzen diren bidai agentziak, lore-dendak, ezkontzetako gonbidapen eta opari dendak, bitxi-dendak, ezkontzetarako jantzien dendak, argazkigintza eta bideo enpresak, ezkonberrien etxerako hipotekak ematen dituzten bankuak, ezkontza-aurreko zein osteko kontratuak egiten dituzten abokatuak, dibortzioetan espezializatutako abokatuak, maite-mina sendatzeko psikologo eta terapeutak...

>KULTURAREN INDUSTRIA: Maitasunak saldu egiten du eta ondorioz, kontsumo kulturaren esku-ragarri ditugun produktu gehienek ere, maitasun erromantikoaren mitoa saltzen dute: abestiak, poemak, nobelak, pelikulak, telebista programak, lehiaketak...

>FAMILIAREN INDUSTRIA: Umeentzako eta jaioberrientzako produktuak (hauts-esnea, farde-lak, txupeteak, gurditxo eta aulkitxoak, biberoiak, kremak, janari bereziak...) saltzen dituzten enpresak, jostailu-dendak, hezkuntza-industria (testu liburuak, uniformeak, eskola-materiala), familientzako aisialdi eskaintza (parke tematiko handiak, aquarium-ak, udalekuak, ume zein nerabeentzako teknologia).

>...

Ikusten dugunez, mendebaldeko ekonomiaren zati handi bat *maitasunaren industriara* bideratuta dago. Kontsumismoa neurri handi batean familia bat osatuko duen eta kontsumoa bizi-eredu gisa hartuko duen bikotera bideratuta dago. **Medioen bitartez, kontsumismoa modu idealizatu batean eta norberaren auto-errealizazioari eta bizitza emozional zein sexual asebetekoari lotuta eskaintzen zaigu** (estetika, markak, irudia...): txokolate honek desira piztuko digu, desodorante hau erabilia segurtasun ezak bukatuko zaizkigu, xaboi horrekin garbituta gure ile ezin-distiratsuagoak begirada guztiak erakarriko ditu, plater hau prestatuta betirako maiteko zaitu, azkazal gorri horiekin ez dizu eskua askatu nahiko... **Kontsumitzeak asebeteko gaituela sinestarazten digute, gure behar afektiboak beteko ditugula, maitasun-zorion egoerara batera helduko garela.** Oso bestelakoa da, ordea, kontsumo gizarte honen errealitatea, izan ere, gehienetan frustraziora garamatza.

Maitasun erromantikoa: garen laranjaren erdia zelan lapurtu ziguten...

Maitasun erromantikoa mendebaldeko kulturaren gailentzen den maitasunaren ideologia izendatzeko erabiltzen den kontzeptua da. Beraz, maitasun erromantikoa gure kulturaren hegemonikoa den ideologiaren eraikuntza sinboliko eta soziala da. Maitasunaren pentsamendu horretan hezten gaituzte umetatik (implizituki nahiz esplizituki) eta ondorioz, hori bihurtzen da maitasunari buruz daukagun kontzeptzio edo ulerkerak bakarrik; gehienetan oso naturalizatua eta eredu alternatiborik gabe. Mendebaldeko kultura maitasunaren kultura da. Egun, hemen, maitasuna guztiaren gainera kokatzen da. Eta maitatzeko modu ororen gainean kokatzen dena, pasiozko maitasuna da, erromantikoa, ia beti bikote harremanetan ematen dena.

Esan genezake, maitasuna dela gaur egun gure bizitzaren ikuskera eta bizi-proiektuak ordenatzen dituen elementu garrantzitsuena. Baita gure buruei eta besteiei begiratzeko moduan eragiten duen faktorea. Pentsamendu erromantikoa iruditegi eta mito ezberdinez osatuta dago eta funtzio politiko zein ekonomiko zehatz batzuk ditu, motzean: sistema heteropatriarkala eta kapitalistaren hierarkiak bere horretan iraunaraztea. Beraz, maitasun erromantikoa, ideologia hegemonikoaren arabera eraikuntza sinboliko eta soziala da, eta instituzio sozialen bidez transmititzen da.

Sozializazio prozesuan zehar barneratzen dugu maiteminduta gaudenean nola sentitu behar garen, noiz maitemindu behar garen, besteak erakartzeko zein ezaugarri izan behar ditugun, eta norbait maitatzeko hark izan beharreko ezaugarriak: sexua, adina, klase soziala, egoera zibila, itxura fisikoa, jarrera... Bikote harremana hasteko eta hausteko urratsak eta erritmo egokiak zeintzuk diren ikasten ditugu, maitemintzen den jendeaz zer espero behar dugun, maitemintzeko toki egokiak zeintzuk diren... Berriz ere, maitasunean "normala" dena ikasten dugu.

Nerabezarotan sortzen hasten garen fantasia eta desirak, mito erromantikoaren arabera eraikitzen ditugu maiz. Udalekuek goazenean barrenak astinduko dizkigun norbait ezagutzearekin amets egiten dugu, institutuko azken egunean bi urtetan zehar sekretupean maite izan dugun horri sentitzen duguna zelan adieraziko diogun planifikatzen dugu, pertsona horrekin hondartza zein mendi gailurretan ikusiko ditugun iluntzean esperoan bizi gara, ezkututik begiratzen dugu ezinezko maitasun hori. Fantasia horiek txikitatik entzundako printzesa-printze urdin ipuinetatik, nerabeentzako aldizkarietako test-etatik, maitasun pelikula/nobela/telesailetatik... maileguan hartutako irudiak dira.

Neska eta mutilok ezberdin maitatzen al dugu?

Generoaren arabera emozioen eraikuntzaren ondorioz, ezberdin bizi eta ezberdin ulertu izan dugu maitasuna neska eta mutilok. Sozializazioa ezberdina da maitasunari dagokionean ere: mutilak, botere soziala izateko heziak, eta boterea duten heinean maitatuko dituen neska bat merezikote dute; neskak, menpeko izateko heziak eta maitasunean bere auto-errealizazioa bilatuko dute. Horregatik, maitasuna neskon bizitzen erdigunea da askotan, bizitza honetan inor izateko bidea. Heziketa trinkoa jaso dugu eta gai honetan aditu bihurtzen gaituzte. Horren seinale dira adibidez, elkarri maitasun kontuetan jarraitu beharreko aholkuen inguruan izaten ditugun elkarriketa luzeak, maitasunean master bat bagenu bezala! Mutilek aldiz, heziketa pasiboagoa jasotzen dute eta gehienetan eremu sexualarekin dauka zerikusia: maitasuna, bere bizitzako proiektu bat gehiago besterik ez da. Ondorioz, harremanarekiko dedikazioan desoreka handiak eman ohi dira. Neskak guztiz "besteentzako izaki" izatearekin eta zaintza rolekin loturik egongo dira, ezkutuan eta errekonozimendurik gabe etxeko eremuan lanean.

“Ezkundu ziren, betirako maitatu, betirako zoriontsu...”

Baina printze urdinarena ipuina zen!

Azken bi mendeetan zehar maitasun erromantikoa egoera zibil ideial bezala saldu zaigu, bere bukaera logiko eta zoriontsua familia nuklearra delarik.

Modernitatean, XVIII. mendetik aurrera, gaur dugun genero sistemaren oinarriak finkatu zirenean, bizitza eremu pribatu eta publikoan bereizi zen, emakume eta gizonak eremu bakoitzari lotuz hurrenez hurren. Une horretan emakumea “maitatzeko izakitzat” definitu zen: izaki emozionala, zaintzeko gaitasun naturalarekin, ama izateko patu eta senarekin... Aitzakia horrekin kateatu ziren emakumeak eremu pribatura, alegia, hiritartasun eskubiderik ez zeukan eremura. Eremu pribatuan emakumeak menpeko eta “besteentzako izaki” izatea zen eguneroko ogia, etxeko lau hormen itzalpean ezkutatuta geratzen zen errealitatea. Honek emakumeen zapalkuntza sakondu zuen.

Bestetik, une honetan ezkontza eta familia eredu patriarkala gizartearen sostengurako oinarritzko instituzio gisa ezartzen da. Ezkontzak moral kristauak ezartzen zituen arau, betebeharrak eta bekatuak mantendu zituen: fidelitatea, elkarbizitza, eskusibotasuna, erreproduzioaren ezinbestekotasuna eta helburua... Baina kode moral hau emakumeentzat izan ohi da nahitaezkoa, gizonentzat askoz malguago delarik. Horren adibide da historian zehar gizon ala emakumeak gauzatutako adulterio kasuak zein ezberdin tratatu diren: lehenengoaren kasuan erraz barkatuz eta emakumeen kasuan, garaiaren arabera, zigortu, espetxeratu, umiliatu edo erailak izan diren artean.

Maitasun eredu hegemonikoak sistema honetan betetzen duen funtzio nagusia ordena soziala mantentzea da. Hasierako atalean planteatzen genuenaren arabera, botereak eta ideologiak maitasun harremanak zeharkatzen dituzte. Hortaz, maitasuna ez da magia, “fletxazo” eta bultzada biologikoen eremuan kokatzen (historikoki egin izan den moduan eta oraindik ere egiten den moduan). Aitzitik, elementu sozial, politiko, ideologiko eta ekonomikoz josia dago.

Eredu normatibo eta hegemonikoak dauden bezala, arrakalak ere badaude: eredu alternatiboak, disidentek eta subertsiboak, eredu heteropatriarkala gure ekinbidez pitzatu ahal denaren adibide argiak dira.

Arrakalak arrakala ordea, gaur egun, ezkontza heterosexuala eta familia nuklearra maitasun erromantikoren azken helburu gisa idealizatzen jarraitzen dira gazteon artean. Honek hainbat kontu ziurtatzen ditu: feminitate eta maskulinitate eredu hegemonikoak erreproduzitzen jarraitzea, familian emakumeek doako zaintza lanak egiten jarraitzea, etengabe kontsumituko duten egitura sozialak sortzea...

Maitasun erromantikoaren mitoak: “Zu gabe, ez naiz ezer!”

Gure kulturak maitasunari hainbat ezaugarri, mito, iruditegi eta sinbolo egozten dizkio. Iruditegi hau sozializazio agente ezberdinetatik zabaltzen da: komunikabideak, produkzio kulturala, eskola e.a. Eta komunitate batean balio sinbolikoen kode bat ezarri nahi duen orok egiten duen moduan, maitasun erromantikoaren aparatuek bere erritualak ditu: bikotea harreman hasteko lehen urratsak, bikotea gizartean aurkezteko unea, koitoxa praktikatzeko den lehen aldia, ezkontza, elkarrekin bizitzera joandako unea, seme-alabak edukitzea... Mitoei dagokionez, maitasunaren pentsamendu oso bat eraikitzen da ondoko elementuetan oinarrituta:

>Laranja erdia, bateragarritasun osoa. Hutsunez jositako izakitzat definitzen gaituzte, soilik gure erdia den beste pertsona batek bete ahalko dituenak.

>Maitasun ahalguztidun eta salbatzailea: “Nire maitasunak dena gaindituko du”.

>Sinbiosia eta fusioa: “Zurekin bizitzaren hutsune eta bakardadeak bukatuko dira!”


>Kontrola, dependentzia eta zeloak: “Zeloak ditut maite zaitudalako”, “zu gabe ezin naiz egon”, “beldur naizelako nahiago dut festa horretara ez bazoaz”.

>Jabetza: “zurea naiz, hartu nazazu”, “nirea zara, nire ondoan egon behar zara”.

>Beste pertsonan galtzea: Norbere buruaz ahaztea oso maiteminduta dagoenaren seinalea omen da.

- >Sufrimendua: "Sufritzen baduzu maiteminduta zaude", "Maitatzea sufritzea da".
- >Monogamia eta eskusibotasuna: "Beste norbaitekin bazaude ez nauzu horrenbeste maite".
- >Betierekotasuna: "Betirako maite zaitut!".
- >Maitasunak bizitzari zentzua ematen dio eta identitate bat eskaintzen digu: "Zu gabe, ez naiz ezer ere".
- >Maitasunari lotutako identitate edo rolak oso berezituta daude generoaren arabera: "Printze urdin ausartak eta printzesa arrosa ahulak".
- >Sexualitatea, tabuz beteriko eremua. Ligatzea eta sexua emakumeek beldurra zein lotsarekin lotzen dute askotan. Gizonezkoek, ordea, "gizontasuna frogatzearekin" edo ausardiarekin.
- >Lehenengo aldiaren mitoa, heldutasunera heltzeko erritu gisa ulertzen da, "nik dagoeneko egin dut!". Emakumeen kasuan mito hau errotuagoa dago, purutasunarekin eta arriskuarekin lotzen delarik.
- >Sexualitatea koitozentrismoarekin lotzea menua oso zabal denean: zergatik koitora mugatu? Barneraino sartu nahi izan diguten moral kristauaren arrastoak direla eta, gure buruetan oraindik ere harreman afektibo-sexualak oso lotuta daude ugalketarekin, eta sexua erreproduzitzeko asmo gabe praktikatuta ere, gure iruditegian "egokiak" diren praktikak, ugalketarako bideratutakoak dira (bikote heterosexual baten barrukoak, alegia). Gainontzeko praktika gehienak tabua dira. Gainera, neskoi besteen plazera lortzera begira hezi gaituzte, hortaz, asko kostatzen zaigu gure plazera lehen lerroan kokatzea harreman afektibo-sexualean. Askotan, gure gorputzei plazera emateari, ezagutzeari, uko egiten diogu nahiz eta harreman afektibo sexualen oinarri garrantzitsua izan.
- >Falozentrismoa: harreman afektibo-sexualetan gizonen genitalen estimulazioan zentratzea. Horrek harremanok gizonezkoen orgasmoekin bukatzea ekar dezake bikote heterosexualetan. Gainera, sarketa emakume askoren kasuan ez da nahikoa orgasmora iristeko. Horrez gain, gorputzeko beste atal batzuek eskaintzen diguten plazera ez ezagutzea dakar, horrela, gure plazerren zein gure gorputzen gaineko ezagutza mugatuz. Harreman afektibo-sexualak gehienetan orgasmorako lasterketa gisa ulertzen ditugu, horrek genitalak erdigunean kokatzea suposatzen du. Gorputzeko gainontzeko atalek ere plazera ematen dute, harreman afektibo-sexualak sormenerako eremu direla ulertu beharko genuke.

INDARKERIA SEXISTA GAZTEENGAN: AGERIKOA ETA MIKROA



Indarkeria sexista emakumeak zapalkuntza sozial, ekonomiko eta ideologikora lotzeko ezinbesteko tresna da sistema heteropatriarkalarentzat. Indarkeria sexistaren inguruko ikerketa eta datuek diote ustezko "berdintasunaren gizarte" honetan indarkeria ez doala gutxituz, are gehiago, indarrez birproduzitzen den errealitatea dela. Mezu kontrajarriak hortaz: berdintasuna eta indarkeria sexista elkarbizitzen? Ez ote gara biziko ba gizarte guztiz hierarkiko batetan, zeinak emakumeak sistematikoki zapaltzen dituen? Bai, hala da, eta badakigu indarkeria sexista egiturazkoa dela, keinu sotilenak eta kasu bortitzenak euren artean lotura daukatela. Atal honetan indarkeria mota ezberdinak identifikatzeko eta elkarlotzeko gure betaurrekoak finduko ditugu. Ez betaurrekoak bakarrik, **mikromatxismoa identifikatu eta erantzuteko gure mikroskopioak prest ditugu!**

Indarkeria sexista gazteon bizitzako eremu guztietan ematen da. Indarkeria sexistak norabide zein forma anitzak izan ditzake, eta hasierako atalean ikusten genituen botere asimetriekin zerikusi handia dauka. Hurrengo lerroetan, ordea, neskek mutilengandik, eta batez ere harreman intimoen baitan jasotzen duten indarkerian oinarrituko gara. Gazteok sufritzen ditugun indarkeria egoera gehienak esparru horretan ematen direlako.

Ageriko indarkeria, gure betaurrekoak detektatzen dutena

Indarkeria sexistaren zenbait adierazpen oso agerikoak dira: bortxaketak, tratu txarrak, jazarpenak, mehatxuak... Horiek muturreko kasuak dira; denboran luzatzen joan den zapalkuntza baten adierazpen gorenaren. Horrelako erasoetan ikusten dugu sistemak heziketaren bidez indarrean jarritako maskulinitate ereduarentzat emakumeak jabetza bat besterik ez garela. Mutilen desiren eta borondatearen arabera men egingo duen objektu bat: sexu grina daukatenean, gogoia izan ala ez, ase; aita izan nahi dutenean, seme-alabak "eman"; nekatuta eta itota daudenean, atseginak izan... Eraso horiek errealitate orokortua ez direla esango digute, baina gure nahi eta borondatearen kontra harreman sexualak izatera behartzen gaituenari zer darabilkio buruan? Zoratuta dago, ala horretarako boterea duela irakatsi dion heziketa prozesu oso bat du atzetik?

Ageriko eraso horiek, momentu batean edo bestean, asko baldintzatzen dute neska gazteen bizitza. Adin batetik aurrera, gauean kaletik gabiltzala beldurra izan behar dugula erakusten digute. Espazio publikoa, kalea eta gaua emakumeon espazioak ez direla erakusteko beldurraren mekanismoari eusten dio sistemak. Tamalez, ezin dugu esan beldurrerako arrazoirik ez dagoenik, gauez ematen diren sexu erasoak ez baitira noizbehinkako kontuak. Aldiz, gogoratu beharko genuke sexu eraso gehienak ezagunen artean ematen direla (bikotea, lagun, senidea.. dira figura ohikoak) eta gehienetan ez dira kalean gertatzen gaueko ordu txikietan. Halere, beldur horren aurrean etxean geratu ordez, **aspaldi egin genuen beldurra gure alde jartzeko eta erantzuteko hautua, beste emakumeekiko aliantzarekin autodefentsa feministari ekitekoa!**

Era berean, neskoi **askotan pasa zaigu lagunekin gustura pasa nahi genuen parranda bat babosoren batekin izandako eztabaida baten ondorioz zapuztea.** Ere horretan gainera, askotan pasatzen zaigu guk erasotzat identifikatzen duguna ingurukoek eraso gisa ez ikustea eta ondorioz gure jarrera ingurukoek babestea, edo alkoholari errua botatzea, edo babosoa lagun eremukoa izatea, edo nahiz eta tipoa gaintetik kendu amorratuta etxera joatea. Are gehiago, txikitatit jasotako heziketaren ondorioz, askotan ez diogu geure buruari zilegitasunik ematen eraso bat zer den eta zer ez den erabakitzeko, eta jasotako heziketa horren ondorioz, geroz eta lausoago bihurtzen da indarkeria egoeren identifikazioa.

Bikote heterosexualen barruko indarkeria sexistari dagokionez, oso ohikoa da pentsatzea urte luzez ezkon dutako eta elkarrekin bizi izandako bikote helduen artean ematen den fenomeno dela, gizon bortitz eta alkoholikoen eta emakume etxekoandre guztiz biktimen artean. Baina iruditegi hau guztiz interesatua izateaz gain, gazteen arteko bikote harremanetan ematen den indarkeria aintzat ez hartzea dakar. Gazteok maitasun erromantikoen ideologia barneraino sartuta dugu eta irakaspen hau sakonagoa da neskongan. Ondorioz, neska gazteok oraindik ere babestu, zaindu eta erotasunez maiteko gaituen gizonezko figura baten bila itsutzen gara, maitasuna eta sufrimendua elkarrekin doazela uste dugu, jelskor egotea maitasunaren adierazpide dela, maitasuna mutilen bortizkeria baretzeko gai dela... Itsutasun horrek ez digu indarkeria sumatzen uzten, nahiz eta agerikoa izan.

Tratu txarrak jasandako emakumeekin lan egiten duten egoitzetara gero eta neska gazte gehiago joaten gara. Gehienak 15-17 urte artekoak diren arren, 12 eta 13koak ere badaude. Neska hauekin egin behar den lanketa ez da hainbeste indarkeriaren ingurukoa, maitasunari buruzkoa baino: sentitzen dutena zer den eta zergatik sentitzen duten aztertzen dute, ondoren, horrek indarkeria sexistarekin duen loturan sakontzeko.

Mikromatxismoa: ezkutuko indarkeria sexista

Mikroskopiaok prest ditugu!

Hasteko, aitortu beharra dago orain hain agerikoak iruditzen zaizkigun indarkeria praktikak azaleratzeko Mugimendu Feministak urte luzez lan egin duela indarkeria salatuz hezkuntza eremuetan, instituzioetan, kaleetan e.a. Egindako lana aintzat harturik, oraindik bide luzea daukagu egiteko eta Ernairen apustua da fokua jartzea gure arteko harremanetan edo egunerokotasunean ematen diren, baina ikusezinak zaizkigun eraso sexistetan. Findu ditzagun bada mikroskopiaok eta prestatu ditzagun erantzuteko gure arma guztiak!

Esan bezala, horren agerikoak ez diren bestelako erasoak ere badaude. Oso sotilak, naturalak direla erakutsi dizkigutenak, eraso gisa identifikatzea kostatzen zaizkigunak eta gainerakoei ere eraso gisa ikustarazten kostatzen zaizkigunak. Eta eraso horiek dira, hain zuzen, etengabe eta edonon pairatzen ditugunak.

Adibideak nonahi topa ditzakegu, batzuk aipatzearren:

Emakumeak etengabe epaitu eta kritikatzeari, batez ere bere itxura fisikoagatik; ohikoa da taberna baten mutil koadrila batek indar erakustaldia egitea eta horretarako tabernako espazio guztia erabiltzea, beste koadrilak, guztiz baztertuz; asanblada batean oso gutxitan aditza nesken ahotsa eta kanpora begirako ekimenak mutilen esku geratzea; emakume bat gatazka baten dagoenean, mutila bestea jipoitze, neskari inork ezer galdetu gabe eta jarrera paternalista batekin neskaren erantzuteko bideak kaltetuz eta muga-tuz; mutil talde batek beste mutil bat baztertzea edo iraintzea haren izaera femeninoagatik; nesken artean eman ohi diren lehia eta gatazkak mutilen arreta eta onspena berenganatzeko; eredu estetiko hegemoni-ko zurrunaren patroiei jarraitzea besteen begiko izateko...

Mikromatxismo kontzeptua bereziki maskulinitateak landu dituen Luis Bonino Méndez autoreak sortu zuen indarkeria ikusezinak ikustarazteko. Kontzeptu horrekin beste autore batzuek *"tirania txiki"*, *"terrorismo intimo"* edo *"indarkeria bigun"* izendatutako jarrereri egin nahi die erreferentzia. Ernairentzat, indarkeria sexista ikusezina edo sotila izan daiteke kontzeptu honen sinonimo. Izan ere, egunerokotasunean ematen diren indarkeria eta menperatze praktika desberdinetan, batzuk ikusgarriak eta sozialki gaitzetsiak diren bezala, beste batzuk ikusezinak, izengabeak eta inongo errekonozimendu eta zigorrik gabe ematen dira. Normalean, identifikazio zailtasun horrek guk ere gauzatzea, inplizituki onartzea eta erreproduzitzea erraz-ten du.

Beraz, mikromatxismoei ez zaie "mikro" esaten txikiak edo garrantzia gabekoak direlako; baizik eta egu-neroko jarrera normalizatu eta naturalizatuak direlako, gehienetan justifikatuak eta legitimatuak izanik.

Hauek dira indarkeria sexistak (mikromatxismo deiturikoak barne) harremanetan betetzen duten funtzio eta helburuetako batzuk:

- >Harremanetan zapaltzaile posizioa duenaren boterea ezarri eta mantentzea.
- >Harremanetan "dagokion" posizioa aldatzen saiatu edo "matxinatzen" denaren gaineko bote-rea indartu edo berreskuratzea.
- >Zapalduaren ahalduzko pertsona zein harremanei dagokiona oztopatzea, edo zapalduaren jabekuntza hori, aurrez boterea zeukanaren interesen alde baliatzea (azken honek biktima pa-pera hartuz, adibidez).
- >Emakumearen "zaintza lanaz" probestu behar dela naturalizatzea.
- >Emakumeek gizonen behar afektibo-sexualak asetu behar dituztenaren kontzeptzioa mantent-zea.

Genero sistemak, emakumeak sistematikoki eta beraien bizitzetako esparru guztietan zapaltzea eragi-ten du. Zentzu horretan mikromatxismoa ez da soilik harremanen esparrura mugatzen, asimetriak nonahi baitaude: kalean, etxean, ohean, tabernan, lanean, klasean, polikiroldegian, bileran... indarkeria sexistak, dispositibo moduan funtzionatzen du zapalkuntza iraunarazteko eta horregatik ematen da esparru orotan. Ezinbestekoa zaigu harreman asimetriko hauetan zapaltzaile eta zapaldu figurak identifikatzeko mikrosko-pioak eta betaurrekoak trebatzea.

Bikote harreman heterosexualen ezkutuko indarkeriari dagokionez, emakumeak menpeko posizio nabaria okupatzen dutenean, hasieratik ematen da indarkeria sotila eta gutxinaka emakumearen askatasuna muga-tuz doaz. Horrela, emakumeak subjektu bezala ezeztatzen dira, gizonetakoaren mesederako den identitatea sortuz. Nahiz eta mekanismo hauek indarkeria sexista ageriko, zuzen eta bortitzenetik aldentu, helburu bera lortzen dute: emakumeen eskubide eta aukerak, gizonetakoaren menpera jartzea. Prozesu hori modu guztiz inkontzientean ematen da gehienetan, eta progresiboki emakumea defentsa eta botere pertsonala galduz joango da.

Bikote harremanetan, denboraren eta espazioaren kudeaketa berebiziko garrantzia duen elementua da. Harreman guztietan buruhausteak ekartzen ditu denboraren kudeaketak, baina gehienetan kudeaketa hau adostua izan beharrean, botere gehiago duenak markatzen du (normalean gizonak). Hark ezartzen du den-boralizazioa eta planen nondik norakoa. Horrela, zapaldua (normalean emakumea) bere inguru sozialetik aldentzen da maiz, honek dependentzia bat sortuz harremanarekiko, etengabe bertatik elikatzerara bultza-tuz. Honek guztiak, emakumearen isolamendua ekarri du urte askotan eta bere espazio intimoaren galera.

Galera hori faktore garrantzitsua izan da emakumeek beraien behar, nahi eta plazer-bideak ezagutu, bete eta garatzeko eragozpenean. Gainera, espazio propioen galerak aliantzen galera dakar. Hauxe da zapalduen baldintzen ezaugarri nagusia, botere posizioan dagoenari ez baitzaizkio interesatzen aliantza hauek. Honen froga argi bat da, eraso sotil hauek ematen diren harremanetan, gizonezkoak emakumeen lagunekiko mesfidantza azaltzea, haiengandik aldentzeko asmoz: *“burua jaten dizute nire kontra”*, *“jeloskor dago nirekin zaudenetik beti bere atzetik ez zaudelako”*, *“eurekin zauden bakoitzean burua txoriz beteta itzultzen zara”*.. Emakume bikotekidea bere inguru naturaletatik urrunduta, isolatu egiten da, baita harremanean itsutu eta ikusmira galdu ere: indarkeria sotilen aurrean babesgabe geratzen da, bere bizitzaren erdigunea bikotea bilakatzen den arte, sistema kapitalista eta patriarkalak agintzen duen bezala.

Hala ere, sarri ez gaitu inork gure lagunetatik baztertzen, gure inguru naturaletik. Askotan, neskok hain barneratuta dugu maitasun erromantikoaren ideologia, bikotea izatearen beharra eta honekiko proiektzioa, zeinaren ondorioz gu geu borondatez baztertzen garen. Izan ere, gabeziatzko izaki gisa hezi gaituzte eta gure autoerrealizaziorako eta zoriontsu izateko bitartekoa maitasuna izango dela erakutsi digute. Ondorioz bikote harremana guztiaren gainetik kokatzen da, baita norbere ukapena badakar ere.

Gizonezkoek garatutako praktika sexista sotil horiek ez litzateke hain eraginkorrak izango sistemak bere funtzionamendua bermatzeko jartzen dituen bestelako bitarteko guztien sostengu gabe. Neska gazteok txiki-txikitatik barneratu dugu gure bizitzari zentzua emango dion printze urdinaren mitoa eta gure bizi proiektua horren inguruan eraiki dugu. Baina presio guzti horrek ez du gure bizitzen norabidea hasieratik aldatzen; lehendabizi gure emozioetan, gure burua ikusteko eta ulertzeko moduan zein pentsaeran eragiten du. Bestela esanda, gure nortasunaren eraikuntzan, gure identitatean, eragiten du lehendabizi, eta horrek, zeharka, norabidetzen du gainerako guztia. Beste pertsona bati erakargarri suertatzeko estetika eta jarrera kanonak zeintzuk diren irakasten digute eta horren arabera moldatzen dugu gure gorputza, ezkutatu izan beharko ez genituzkeen desira eta portaerak, erreprimitu bestelako sentimenduak; bikotekidea izanda, lehentasuna bera dela irakatsi digute eta horri jarraiki aldatzen ditugu lagunekin planak, bertan behera utzi asmoak, baztertu hura ezeroso sentitzen den eremuak; bikotea zaintzea sakrifizioa dela ikasi dugu, eta horregatik mugatzen dugu gure denbora, ahaztu gure aisialdia, alboratu konpartitzen ez ditugun interesak; maitasunak dena gaindi dezakeela ikusi dugu filmetan eta aldaketa horren esperoan jasaten ditugu mespretxuak, beste aldera begiratu mintzen gaituzten jarreraren aurrean.

Mikromatxismoa indarkeria dispositibo pisutsu izateaz gain, muturreko indarkeria ahalbidetzen du, gizonezkoari emakumearen gaineko boterea emanaz eta emakumea gero eta menpekoagoa eginez. Sarritan agiri-koak diren tratu txar psikologikoa, fisikoa, sexuala zein ekonomikoa, kate luzea duen indarkeria sotilagoaren ondorio dira; mikromatxismoak eutsitakoak dira. Eta, nola ez, makineria heteropatriarkala bere horretan mantentzeko tresna eta engranajeak dira.


Hau horrela, esan genezake mikromatxismo praktika batzuk kontzienteki egiten direla, eta beste batzuk oharkabean erreproduzitzen direla. Jarrera hauen bidez, zapaltzaile egoeran daudenek ez dute soilik euren-tzako onuragarriagoa den botere egoera bilatzen. Euren identitatea berrestea ere bilatzen dute, zapalduaren gaineko gailentasuna eta kontrolean oinarritzen den identitatea hain zuzen ere, kasu askotan emakumeen gaineko nagusitasunean oinarritutakoa. Bestalde, emakumearen arreta osoa eskuratzea ere xedetzat dute. Emakumea jabetza terminoetan ulertzea gainera inbidia, jeloskortasuna, beldurra, segurtasun eza bezalako sentimenduekin lotuta dago.

Aipatu dugun moduan kontrolak atzamar handi eta luzeak ditu, esparru guztietara hel dadin, baina nagusiaren botere hau kolokan jartzen denean, zapaltzailearen alarma pizten dira, hiperkontrola, biktimismoa, errukitasuna zabaltzea edota bere etengabeko autoerreferentzializatzeak egitea izan daitezke krisi egoeran zapaltzaileek erabili ditzaketen mekanismoetako batzuk. Helburua, azken finean, soka gehiago estutzea litzake ezer aldatu ez dadin.

Emakumeontzako, eta oro har, zapalduontzako, praktika mikromatxistak aztertzea lagungarria da, gu kontura gabe, menpean kokatzen gaituztenean antzemateko eta horri aurre egiteko. Gure ardua, beraz, jarrera horien aurrean adi egon eta erantzutea izango da, bakoitza bere bitartekoekin. **Zapaltzaile posizioan daudenekin egin beharreko lanketa, nola ez, pribilejioei uko egiteko prozesu bilakatu beharko litzateke.**

ERNAIREN DISKURTSO FEMINISTA: IRAULTZA MAITASUNEZ ETA MAITASUNETIK!

Sistema heteropatriarkarra etengabe birdefinitzen den sistema bat da, horregatik gure jarrera eta diskurtso feministak honen ziztadak identifikatzeko mekanismoak sortu eta eraiki behar ditu etengabean. Horretarako, ezinbestekoa da maitasuna eta harremanak politikoki kokatzea, Simone de Beauvoirrek esan zuen moduan pertsonala politikoa da, ideologiaz eta hierarkiaz blaituta dago eta beraz, deseraiki, berreraiki eta irauli egin behar dugu.



Hau horrela, gure hautu politikoak sistemaren bazterrean kokatzen diren harremanekin aliantzak sortzean datza, hauek ezagutzeko, hauek bizitzeko eta sistemaren desoreka zein deslegitimizazioa lortzeko, benetako disidentzia indartsu eta koordinatu bat sortzeko.

Gure iraultza maitasunetik abiatu behar da, maitasuna izanik gure bidea, soilik horrela azaleratu eta problematizatu ditzakegulako gure harremanak eta beraz, gure bizitza. Maitasunez egiten dugu iraultza, bada maitasunetik ere egin behar dugu askatasunerako bidea, harreman esparru hori eraldatu gabe hankamotza izango delako eraldaketa prozesua.

Sartu dezagun maitasuna gure agenda politikoan!!!!

Harreman osasuntsu eta aske batzuetarantz...

Harreman osasuntsuen patroia bat ezartzea aurrez aipatutakoaren aurka egitea litzateke, horregatik, gure apustua zaintza eta elikatzean, pertsonen askatasunaren errespetuan eta etengabeko autokritika eta eraikitze batean oinarritzen da. Horretarako, ezinbestekoa da indarkeria sexistaren kontra ekitea, sotala izan ala ez izan. Ortzin mugan, batetik, gure behar afektibo, emozional eta intimoak kolektiboki betetzeko zaintza eta laguntasun sare sendoak sortzea dugu, individualismoari (baita bikotasun batean oinarritutako individualismoa ere) eta lehiari lekua irabazteko. Bestetik, nor bere identitate eta sexualitatea modu askean garatzeko baldintza eta erreferente berriak sortzea.

Baina zelan gauzatu hau praktikan? Askok dugu eztabaidatzeko eta guztion artean eraikiko ditugu erantzunak. Baina abiapuntutzat hartu ditzakegun gako batzuk aipatzearen:

- >Emakumeok subjektu bihurtu: osatu gabeko izaki gisa ikusteari utzi eta agente bilakatu.
- >Harreman ez normatiboak errespetatu, ikusarazi eta hauek legitimatzeko sareak sortzeko konpromisoa hartu: heteroarauarekin apurtzen duten harremanak, harreman lesbiko, homosexual, bisexualak, harreman ez monogamoak, familia nuklearretik aldentzen direnak, aniztasun funtzionala dutenen artekoa, jatorri ezberdinen artekoa, molde estetikoak jarraitzen ez dutenen artekoa...
- >Harreman disidenteak bizitzen ausartu (monogamia kolokan jarri, heterosexualitatea kolokan jarri, desira modu askean bizi...)
- >Harremanak "naturala den" eremutik atera; politikoki eraikitako eremuan kokatu, eta gure emozio eta jarrerak nondik datozen hausnartu eta politizatu.
- >Desira problematizatu eta desiraren, sexualitatearen eta pornografiaren beste iruditegi bat eraiki.
- >Harremanak negoziatu eta adostu.
- >Harremanetan komunikazio bide iraunkorrak zabaldu; bakoitzaren nahi/desio/beharrak modu eroso batean partekatu ahal izateko eta harremanari lotutako korapiloak zein desorekak lantzeko.

>Jeloskortasuna desnaturalizatu eta hau lantzeko apustua egin.

>Norberak bere hutsune eta beldurrak onartzea, eta ez derrigortzea (modu ageri edo ezkutuan) inor hauek betetzera menpekotasun harremanak sortuz.

>Bakardadea berrikusi: zer egingo dugu bakardadearen mamuarekin honek gure harremanak ez baldintzatzeko eta ondorioz ez onartzeko menpekotasun edo zapalkuntza egoerak?

>Fidelitatea birdefinitu: Gure arteko aliantza eta harreman estuak sortzeko apustua egiten badugu (bai lagunekin, bikotearekin...) nola birdefinituko dugu konpromisoa kode moral hegemonikoa gaindituz?

>Kultur erreferente berriak sortu: bestelako maitasun eredu bat zabaltzen duten kultur erreferenteak indartu eta hauen ekoizpenean egin desoreka.

>Maitasuna jabetzarekin eta sufrimenduarekin lotzeari utzi: harremanek, parte diren guztien ongizatea izan behar dute oinarri.

DOSSIERRA LANTZEKO METODOLOGIA:

1. Ariketa: BOTERE HARREMANAK

Behar diren materialak:

> Arbela edo honen funtzioa egiten duen pareta, papera, boligrafoak eta zelaia.

Helburuak:

> Sexu-genero eraikuntza ulertzea. Generoen arteko botere harreman asimetrikoak identifikatzea.

Dinamikaren azalpena:

> Sexu-genero eraikuntza kontrajarriak diren elementuen artean eraikitzen da, kontrajarriak diren elementu hauek asimetrikoak dira, hau da, bata bestearen gainetik kokatua dago.

> Elementu kontrajarriak identifikatuko ditugu eta sexu-genero eraikuntza horretan kokatu.

> Guztion artean adibideak jarriko ditugu elementu bakoitzaren kokapena argudiatzeko.

Horretarako,

> Arbelean NESKA/MUTILA izenak jarriko ditugu.

> Izen hauen azpian elementu kontrajarriak itsatsiko ditugu.

Elementu kontrajarriak:

Aktiboa/pasiboa

Indartsua/ahula

Sentibera/arraionala

Protagonista/ikuslea

Autonomoa/dependientea

Elementu hauek adibide ezberdinekin lotuko ditugu eta nahi izanez gero, bururatzen zaizkigun beste adibide batzuk jarriko ditugu:

- > Aurreko egunean Miren parrandan zegoen bere mutil-lagunarekin. Mireni baboso bat gerturatu zitzaion berarekin dantzan egin nahi zuela behin eta berriro esanez, honek ezetz esan zion, lasai asko zegoela bere tragoarekin. Mutil-laguna, egoera ikustean, asko pentsatu gabe babosoari bul-tzaka hasi zen.
- > Espazioaren kudeaketa (taldearen arabera adibidea egokitu): Eskolako jolastokian, patioaren erdialdean futbol zelai handi bat dago, bertan mutilek jolasten dute normalean; neskak aldiz, futbol zelaiari bueltak ematen pasatzen dugu jolas-ordua./ Tabernaren erdialdean futbolin bat dago eta bertan pasatzen dituzte orduak mutilek, neskak aldiz, tabernaren albo batean geratzen dira mahai batean eserita euren artean hitz egiten.
- > Oso bakarrik sentitzen da Naike bere mutil-lagunak utzi zuenetik. Aspaldi ez du bere burua balo-ratzen beste mutil-lagunik ez duelako topatzen, inork ez ote du maite?
- > Azken aldian Eneko ez dago ongi, ez du ezer esaten baina gaixorik jartzen da astero. Esaten dute zerbait txarra pasatu zaiola, baino inor ez dago ziur, Enekok ez du bere arazoez inorekin hitz egiten eta.

2. Ariketa: MAITASUN ERROMANTIKOA

Behar diren materialak:

- > Arbela (edo arbela funtzioa egiten duen pankarta zati bat, paper zati bat...), bertan idazteko kla-rion edo errotulkia, musika jartzeko gailua (radiokaseta, ordenagailua...), abesti erromantikoa (ikus-i proposatzen den zerrenda).

Helburuak:

- > Maitasun erromantikoaren ideologiaren mito eta ezaugarri nagusiak eta hauek daukaten egitu-razko funtzioa ezagutzea.
- > Harreman eredu alternatiboak eraikitze bidean dauden gakoak identifikatu eta hauen inguruko eztabaida bat sortzea

Dinamikaren azalpena: *Ariketa hiru ataletan garatuko dugu.*

a) Abestia entzun:

- > Borobil bat osatuko dugu bertaratu garen guztion artean, eta ariketa azalduko dugu:
- > Gure gizartean dagoen maitasun eredu hegemonikoa maitasun erromantikoarena da. Hau txikitatik ikasten dugu sozializazio agente ezberdinen bitartez: eskola, familia, komunikabi-deak. Aparatu erromantikoa erreproduzitzen duen produkzio kultural amaigabea dago: peli-kulak, ipuinak, aldizkariak, iragarkiak e.a. Honek guztiak gure identitate eta harremantzeko era moldeatzen du. Maitasun erromantikoaren iruditegi, mito eta ezaugarriak errepasatzeko abesti bat entzungo dugu.

Maitasun erromantikoa lantzeko abesti zerrenda posible bat:

- > La tortura, Shakira
- > Vivir sin aire, Mana
- > Zure begiek, Mikel Markez
- > Behar zaitut, Hesian
- > Laztana, Latzen

b) Mapa osatzen:

> Entzun dugun abestiaren edukietatik abiatuz arbelean mapa osatuko dugu. Bi zutabe egingo ditugu. Alde batean mito eta ezaugarriak kokatuko ditugu, bestean egiturazko funtzioak. Ondoren ideia batzuk:

MITO ETA EZAUGARRIAK:

- > **Bateragarritasuna:** bi erdien, kontrakoen batasun perfektua
- > **Magikoa:** Fletxazoa, maitasuna mistikoa da, emozioetan gertatzen dena ez da garunetik pasatzen, maitasunak gure borondatea deuseztatzen du
- > **Monogamikoa eta jabetza terminoetan ulertua:** Zurea naiz, maite banauzu ezin duzu beste inor maite, jeloskorra naiz maite zaitudalako
- > **Betierekoa:** Benetako maitasuna bakarra da, bizitzan behin gertatzen da eta heriotzararte irauten du
- > **Laranja erdia:** pertsonok, hutsune naturala daukagu eta beste norbaitekin betetzen da, z gabe ez naiz ezer.
- > **Ahalgutziduna:** nire maitasunak edozer gauza gaindituko du
- > **Kontrola eta dependentsia**
- > **Beste pertsonan galtzea:** Nork bere buruaz ahaztea oso maiteminduta dagoenaren seinalea omen da
- > **Sufrimendua:** sufritzen baduzu maiteminduta zaude
- > **Maitasunari lotutako identitateak oso berezitura daude generoaren arabera:** Printze urdin ausartak eta printzesa arrosa ahulak

EGITURAZKO FUNTZIOAK:

- > **Heteropatriarkatua eta kapitalismoa iraunaraztea.** Emakumeen zapalkuntza iraunaraztea
- > **Sexu-genero-rol bereizketa:** gizon-emakume, produktibo-erreprouktibo, arrazional-emozional, aktibo-pasibo, kultura-natura, publiko-pribatu...
- > **Heterosexualitatearen erregimena mantentzea,** heteroaraua.
- > **Gure desirak kontrolatzera bideratu,** gorputzen gaineko kontrola.
- > **Oinarrizko unitate soziala:** bikote hetero eta familia nuklearra (etxebizitza, hipoteka, lan-banaketa...)
- > **Menpeko feminitatearen eraikuntza** maitasunaren bitartez: "Printzesizazioa"
- > **Emakumea maitatzeko eta besteentzako izakitzat eraikitzea:** zaintza, etxea, entrega, besteak maitatzea bere autoerrealizazioa

c) Eztabaida lantaldeetan:

> Lau edo bost pertsonetako lantaldetan jarriko gara. Maitasun erromantikoaren ereduak gainditu eta beste harreman ereduak garatze bidean ditugun gako eta korapiloen inguruan eztabaidatuko dugu. Ondoren ideia batzuk:

- >> Harreman ez normatiboak errespetatu, ikusarazi eta hauek legitimatzeko sareak sortzeko konpromisoa hartu: heteroarauarekin apurtzen duten harremanak, harreman lesbiko, homosexual, bisexualak, harreman ez monogamoak, familia nuklearretik aldentzen direnak, aniztasun funtzionala dutenen artekoa, jatorri ezberdinen artekoa, molde estetikoa jarraitzen ez dutenen artekoa...
- >> Harreman disidenteak bizitzen ausartu
- >> Harremanak "naturala den" eremutik atera, eraikitako eremuan kokatu, eta emozio eta jarrerak nondik datozen hausnartu eta politizatu
- >> Desira problematizatu eta desiraren, sexualitatearen eta pornografiaren beste iruditegi bat eraiki.
- >> Harremanak negoziatu eta adostu.
- >> Harremanetan komunikazio bide sendoak eraiki; norbere desio/nahi/beharrak modu eroso batean azaldu eta harremanari lotutako korapiloak eta desorekak lantzeko.
- >> Jeloskortasuna desnaturalizatu eta hau lantzeko apustua egin

- >> Norberak bere hutsune eta beldurrak onartzea, eta ez derrigortzea (modu ageri edo ezkutuan) inork hauek betetzera menpekotasun harremanak sortuz.
 - >> Eztabaidatzea: zer egingo dugu bakardadearen mamuarekin gure harremanak ez baldintzatzeko eta menpekotasun edo zapalkuntza egoerak onartzera ez eramateko?
 - >> Gure arteko aliantza eta harreman estuak sortzeko apustua hartzen badugu (bai lagunekin, bikotearekin...) nola birdefinituko dugu konpromisoa kode moral hegemonikoak gaindituz?
 - >> Nola landu eta bizi harreman baten haustura porrota bezala hartu gabe? Nola eraiki eta elikatu harremana bikotea hautsi eta gero?
- > Nahi izanez gero plenarioan jarriko gara eta lantaldeetan atera diren ideia nagusiak komentatu.

3. Ariketa: Mikromatxismoak gure bikote harremanetan

Behar diren materialak:

- > Egoerak paperetan idatzita.

Helburuak:

- > Egoera zehatz batzuetan, praktika mikromatxistak identifikatzea.
- > Indarkeria sotilak gure egunerokotasunean hartzen duen forma aztertu, identifikatuak sentitu eta zelan buelta eman aztertzea.

Ariketaren azalpena:

4 lantaldeetan jarriko gara, eta lantalde bakoitzak egoera bat izango du. Egoeretan ematen diren egoerak mikromatxismoak diren ala ez aztertuko dugu, baita harremana puntu horretara zelan iritsi den eta zergatik eztabaidatu ere. Ondoren, inguruan horrelako egoeraren bat ezagutu dugun hitz egingo dugu, eta horrez gain, buelta zelan eman ahalko litzaiokeen. Hona egoerak:

> Julen eta Nereak urte pare bat daramatzate elkarrekin. Aurten unibertsitatean hasi dira, bata Donostiako kanpusean eta bestea Gasteizekoan, astean zehar bakoitza hiri banatan bizi dira. Ondorioz, biek denbora gutxi izaten dute elkarrekin egoteko. Nerea etengabeko kinkan sentitzen da: asteburuan duen denbora mugatua Julenekin emanez gero, ez dago lagunekin; lagunekin geratuz gero, ordea, ez dago Julenekin. Askotan batzuekin zein bestearekin egoteko kristorenak egiten ditu, eta azkenean, modu patxadatsu batean ez dago inorekin. Berak Julenekin gehiagotan egoten dela eta lagunak baztertuta dituela sentitzen du, eta horregatik errudun sentitzen da, urruntze horrek eragiten dion beldurrak gain. Egoera horrek eztabaida asko eragiten dizkie: Nerea gero eta baldintzatuago sentitzen da eta haserretu ez dadin ez dio lagunekin geratu dela esan nahi, eta era berean, Julenek uste du Nereak ez duela berarekiko konfiantzarik sentitzen eta gero eta gehiago baztertzen duela.

> Ikerne eta Mikel ez dabilta oso ondo azkenaldian. Gauza asko leporatzen dizkiote bata besteari, askotan eztabaida sutsuetan gainera. Bakoitza mintzen duena azaltzerakoan, Ikernek sentitzen du Mikel askoz ere trebeagoa dela bere argudioak deseraikitzen eta sentitzen duen guztia zalantzan jarri eta erridikulizatu egiten duela, bere asmakizunak balira bezala, Ikernek berak sentitu duena zalantzan jartzeraino. Dagoeneko ez daki zer den objektiboa eta zer den berak gaindimentsionatua. Beste norbaiten iritzia nahiko luke, baina ez dizkie kontu hauek lagunei kontatzen, lotsa ematen diolako besteek ikustea ze gaizki dabilta.

> Iurgi eta Lorea duela gutxi ezagutu dira, eta abiadura bizian doaz harreman monogamo bat eraikitzen. Denbora gutxi izaten dute elkarrekin egoteko: biek egiten dute lan berandu arte, eta Loreak ondoren bilerak izaten ditu. Behin baino gehiagotan, Iurgik elkarrekin egoteko denbora mugatua berari leporatzen dion sentsazioa izaten du, zuzenean inoiz esaten ez ba-

dio ere. Gaur, Iurgik lan ostean zerbait egiteko proposatu dio, eta Loreak ezetz, gazte asanblada duela. Iurgi temati jarri da: behin faltatzeagatik ez dela ezer pasako, ea beti berak joan behar duen, arratsaldero bilerak dituela... eta azkenik, berarekin lasai egoteko gogo handiak dituela. Azkenean, Lorea errudun sentitu da eta ez da bilerara joan.

> Haizea eta Alazne azken bi asteburuetan liatu dira baina ez diote inori esan, beraien lagun zein ingurune hurbilean adierazpen deserosoak eta burlak saihestu nahian. Estrategia bat jarraitzen dute: parrandan daudela, elkarrekin komunera doaz bertan laztandu eta musukatzeke, nork uste du neskak komunetan elkar liatu daitezkeela? Soilik pixa egiten baitute!

> Erikak duela urte bete utzi zuen bere bikotearekin, eksklusibotasunean oinarritutako harreman batek itotzen baitzuen. Geroztik, askotan ligatzen du, normalean parrandan izaten da, bai neska zein mutilekin, ez zaiolako axola. Ongi pasatzen du, baina egia da nahiago lukeela harreman horiek ez geratzea soilik gau batean, saretu daitezkeen harreman sendo bihurtu nahiko lituzke. Hala ere, bere ingurune hurbilak oztopoak baino ez dizkio jartzen: golfa, bollerak, freska,... Denetarik entzun behar du eta neskek batez ere goitik behera begiratzen diote mespretxuz.

4. Ariketa: Mikromatxismoak gure bizitzetan/ondorioak

Beharrezko materialak:

> Adierazpen zerrenda.

Helburuak:

> Saioan zehar landutako edukiek gure bizitzan duten aztarna aztertzea.

Ariketaren azalpena:

> Lerro batean jarriko gara eta espaloi bat osatuko dugu, lerroaren parez pare marra bat irudikatuko dugu beste aldean eta erdiko espazioa zehrabidea izango da. Dinamizatzaileak adierazpen batzuk botako ditu, eta identifikatuak sentitu direnek, espaloia gurutzatuko dute. Segundu batzuk utziko dizkiogu hausnartzeko, eta dinamizatzaileak lehengo espaloiara itzultzeko aginduko du, inori azalpenik eskatu gabe. Horrela egingo dugu adierazpen guztiekin. Azkenik, plenarioan jarri, eta ondorioak botako ditugu.

Adierazpenak:

- > Noizbait egin nahi nuen zerbait egin gabe geratu naiz, norbaitek sotilki egokia ez zela aditzera eman didalako.
- > Bikotea daukat eta buruan izan dut harremana ondo badoa/bazihoan, momenturen batean elkarrekin bizitzera joango garela/ginela.
- > Bikote harremanetan, eztabaida batean gero eta ahulago sentitu naiz.
- > Noizbaiten sentitzen nuena nire burutazioa, erokeria edo tontakeria bat zela sentiarazi naute.
- > Ez eztabaidatzearren, besteak egin nahi zuena egin dut, nahiz eta nik gogorik ez izan.
- > Noizbaiten bikotea edo gainerakoekin egotearen artean aukeratu beharra sentitu dut.
- > Aukeraketa horretan, gainerako guztia bigarren maila batean utzi izan dudala uste dut.
- > Noizbaiten militantzia bikote harreman bat garatzeko oztopo bezala sentitu izan dut.
- > Noizbaiten bikote harreman bat militantzia gauzatzeko oztopo bezala sentitu izan dut.
- > Bikote harreman bat apurtzerakoan, minarekin batera, bizitzan porrot bat edo akats bat

izan dela sentitu izan dut.

> Saio honetan deskribatutako egoeretakoren batekin identifikatua sentitu naiz.

> Saio honek egun ditudan laguntasun zein bikote harremanen nolakotasuna zalantzan jartzeko balio izan dit.

> Nire bizitzaren norabidearen gaineko jabetza berreskuratzeko asmoa dut.